

Katedralaren ikuspegi berria hiru dimentsioko laser eskaneatzearen bidez erakusten duten bost ikus-entzunezko aurkeztu dira

Santa Maria Katedrala Fundazioak, 25. urteurrenean, bost ikus-entzunezko aurkeztu ditu hiru dimentsioko laser eskaneaketaren bidez katedrala inoiz ikusi ez den moduan erakusteko.

Katedralaren barrualdeko eta kanpoaldeko hiru dimentsioko eskaneaketaren bidez, irudi errealak eta eredu birtualak uztartzen dituzten animazio ikusgarriak egin daitezke, monumetuak egituraren aldetik duen konplexutasun osoa islatzeko. Animazio horiek oso garrantzitsuak dira bide horien ekoizpenean, Gasteizko Santa Maria Katedrala zaharbertitzeko 25 urteko lanak erakusten baitituzte.





Gainera, Jon Lasa eta Leandro Camararen hitzaldiak izango dira, Fundazioaren gerentea eta arkitektoarenak, hurrenez hurren, eta, baita Txus Pavonenak ere, bisita-taldeak koordinatzailearenak. Hain zuzen ere, "Ikusi beharreko katedrala" ekimenaren barruko espazioak aurkeztuko dituzte, "Obretan eta irekita" edo Ken Follett idazle britainiarrek katedralarekin duen lotura azpimarratuz.

Ikus-entzunezko 5 lan horiek **sare sozialetan zabalduko dira**, katedrala herritar guztiek ezagutu dezaten, eta **turismoa sustatzeko baliabide gisa erabiliko dira, ingelesezko, frantsesezko, alemanezko eta italierazko azpiztituluekin.** Halaber, Fundazioak

YouTube duen kanalean eskuratu ahal izango dira.

Ikus-entzunezkoak **Arabako Foru Aldundiak** finantzatu ditu, **Turismo**

Sailaren bitartez, eta **Winwin audiovisual** enpresak egin ditu, TVEko La 2 kateko "Los pilares del tiempo" ondare-programa ospetsuaren egileak.



Bideoen zerrenda

KATEDRALAK BERE ABERASTASUN GUZTIA ERAKUTSIKO DU BESTE BEHIN NAZIOARTEKO TURISMO AZOKAN

Aurten ere, Santa Mariak presentzia nabarmena izango du Euskadiko erakargarri turistikoaren artean, urtarrilaren 21etik 25era Madril en egingo den Nazioarteko Turismo Azokan (Fitur). Katedrala Basquetourrekin egongo da Gasteizko Udalaren standean.

Azoka erreferentea da sektore turistikoaren barnean eta lidertzat jotzen da nazioartean merkatu hartzailer eta igorleentzat. Horrela, edizio bakoitzean, Santa Mariak interes handia pizten jarraitzen du azoka bisitatzen dutenen artean. Katedralak erakutsiko dituen erakargarritasunen artean aurkitzen dira 'Obretan eta Irekita'

bezalako programa finkatuak, bisita gidatuak eta urtean zehar egiten diren jarduerak kulturalak.

Horiekin batera, berriagoak diren beste batzuk ere ezagutu daitezke; hala nola, errealitate birtualeko esperientziak, erdiko nabearn estalpeko espazioa ikusteko aukera ematen duen balkoi begiratokia, elizpeko argiztapen monumental berria, ikusmen-urritasuna duten pertsonentzako maketa irisgarria eta Katedralaren ikuspegi berria erakusten duten bost ikus-entzunezkoak, hiru dimentsioko laser eskaneatzearen bidez.

KATEDRALAK BEHAR BEZALA JARRI DITU BERTAKO BIZI-LERROAK

Fundazioan uste dugu Santa Mariaren mantentze-lanak egitea funtsezkoa dela Katedralaren segurtasuna, funtzionaltasuna eta iraunkortasuna bermatzeko denboran zehar. Izan ere, mantentze-lan egokiek aukera ematen dute akatsak prebenitzeko, istripu-arriskuak murrizteko eta baldintza ezin hobeak ziurtatzeko, bai erabiltzaileentzat, bai Katedralean eta inguruan egiten diren jarduerak guztietan esku hartzen duen taldearentzat.

Testuinguru horretan, bizi-lerroak oinarritzekoak dira, segurtasun-sistema horiek altueran lan egiten duten pertsonak babesteko diseinatu baitira. Era horretan, behar bezala instalatzeak, indarrean dagoen araudiaren arabera ziurtagiria izateak eta mantentze-lanek nabarmen murrizten dute istripuak izateko arriskua.

Urtero bezala, gure bizi-lerroak ikuskatu ditugu, eta, horren ondorioz, ikusi dugu beharrezkoa dela kanpoko eskaileretatik barrena Katedralako punturik altuenera (dorreko tximistorratzat) joateko orga aldatzea.



SANTA MARIAN BEROGAILU INFRAGORRIAK JARRI DIRA



Tenpluaren barruan erosotasun termikoa hobetzea erronka bihurtu da talde osoarentzat. Horrela, hori konpontzeko, berogailu infragorriak instalatzea erabaki da.

Katedrala altuera handiko eraikina denez eta barnean bolumen handia duenez, zaila da konfort termiko homogeneoa lortzea berokuntza-sistema konbentzionalen bidez. Aire beroa eremu altuetan metatzen da, baina pertsonak lurzoruan geratzen dira, eta horrek energia izugarri kontsumitzea eragiten du, erosotasuna benetan hobetu gabe.

Egoera hori konpondu eta tenpluan dauden pertsonen sententzio termikoa hobetze aldera, berogailu infragorriak jartzea erabaki da erdiko nabeko zutabeen ondoan, eserlekuetara eta presbiterioko eremura begira.

Berogailu-mota horrek eguzkiaren beroaren antzera funtzionatzen du; alegia, ez du airea berotzen, zuzenean pertsonak eta inguruko azalerak baizik. Modu horretan, berehalako bero-sentsazioa lortzen dugu okupatuta dauden eremuetan, eraikinarene bolumen handi guztia berotu beharrik gabe.

Irtenbide horri esker, ekitaldi erlijiosoez nahiz kulturalaz goza dezakegu Santa Maria Katedralaren barnean, erosotasun handiagoarekin, eta, aldi berean, kontsumo energetikoa murriztu eta Katedralaren arkitektura historikoa errespetatzen da.

Katedraleko dorrea, ETBk 2026. urteari musika bidez ongiatorria egiteko eszenatokia

Francis, Doctor Deseoko kantaria, eta Zea Mays taldea, Aiora Renteria buru duela, elkartu dira ETBn 2026. urteari ongiatorri musikala egiteko, "Corazón de tango" abesti mitikoarekin. Santa Maria Katedrala hautatu dute urte berri honi hasiera emateko eszenatoki gisa, eta, ziurrenik, gauraldi handiak izango dira bertan, musika protagonista izanik.

Bideoa hemen ikus dezakezu: (23. min.):

